

Maria Etxenagusia Ereñaga
Iurreta, Bizkaia (1927)

Aurkibidea

Biografia

1927ko irailaren 11n jaio zen Santa Marinako Gaztañatza Beazkoa baserrian. Senarra Abadiñokoa zuen. "Iurreta elizateko euskara eta toponimia" lanerako jasotako grabazioan parte hartu zuen.

Zintak

IUR-008

- **Proiektua:** Iurreta elizateko euskara eta toponimia
- **Elkarrizketatzailea(k):** Errazti Igartua, Alberto
- **Data:** 1991-01-01
- **Iraupena:** 9 min
- **Euskarria:** Audio Analog
- **Kodifikatzailea:** Goiria Mendiola, Nerea
- **Transkribatzailea(k):** Errazti Igartua, Alberto
- **Emalea:** Errazti Igartua, Alberto

IUR-015

- **Proiektua:** lurreta elizateko euskara eta toponimia
- **Elkarrizketatzailea(k):** Errazti Igartua, Alberto
- **Data:** 1991-01-01
- **Iraupena:** 13 min
- **Euskarria:** Audio Analog
- **Emalea:** Errazti Igartua, Alberto

IUR-026

- **Proiektua:** lurreta elizateko euskara eta toponimia
- **Elkarrizketatzailea(k):** Errazti Igartua, Alberto
- **Data:** 1991-01-01
- **Iraupena:** 18 min
- **Euskarria:** Audio Analog
- **Emalea:** Errazti Igartua, Alberto

Pasarteak

1. Santa Marinako jaiak

- **Erref:** IUR-008/002
- **Iraupena:** 0:01:37. **Hasi:** 00:02:01. **Bukatu:** 00:03:38

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak

Laburpena:

Santa Marinako jaiak ez ditu ondo gogoratzen. Baina bere aitak kontatutako badaki eta horixe da kontatu duena.

Transkripzioa

“Santa Miñako jaiyek? Nik estekuas olako gogoapen aundirik, se ni seian gerran denporan arrapostén sasóe txárrekue. Da Francon denporan emen esan eitten, emen sekúlan esta itten jairik patxadas, es, emen Santa Miñako konfradiyan esta iñ jairik patxadas. Oin, nire aitte sanak esate aban Askórren, or goiyen dau, da, an emoten sala ardaue debálde orduen sasoién, da, badákixu, ordúen ardaue etxíen eskasa euki, guríen beti egon da txakóliñe, gure etxie txakoliñ-etxie ixen da lengo... Nik enuan esautu, se gerra eurreko txakoliñ-etxí(e), txakoliñ>etxí(e) gogorra, se guríen daus góiyé maiye pa gure atartien kabadakuek, emen etxaurrien be badau erretratu(e), len len atara(r)ikue, etxaurreko matsa, ta guríe txakoliñ-etxie isénikue da, Kastañatzako txakóliña, Kastañatza Abáíñokua es, Kastañatza Iyorretakua. Da esate aban nire aittek, ardaue sela eote san `debálde' or, Askórren, San Kristobal eguna, “el diez de julio”, jéntia etorte ei san, ba, báskaiyekíñ dda, afáiyekin dde, gure dan beste ardaue eran da erdiyekín etorte sienien, ba, batzuk sóluen, da béstie kentzen, da, al dan modúen. Iñós sertu i si(e)n, or emen estarta bat dau, estarta oin serrátute dau, oin kamiñu(e) in ddalako etxín atzetik. Errégiñie ortixi paseta ie san, estaitt se errége ixengo san, Lekeittiyon beranieta abalako, “así ke” etxonek miistro asuntue dekos. Da esate aben nire aittek orti etorri goitti bera rétuén, da klaro, or pentzau es, ta sasiye, eta estartan sartute bate paño geiyau egote sala burúe aber nok atarako aben, da...

2. Inguruko erromeriak

- **Erref:** IUR-008/004
- **Iraupena:** 0:01:10. **Hasi:** 00:04:29. **Bukatu:** 00:05:39

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak

Laburpena:

Mariak ez zituen Santa Marinako erromeriak ezagutu, Arriandira joaten ziren. Azkorreko erromeriak ere ezagunak ziren. Bakixan ere egiten ziren, baina ez ziren hain ezagunak. Orozketakora, ostera, jende asko joaten zen.

Transkripzioa

Onk erromeriyonék estau eukin sekule... beti Arriéndik arrapau dau, nik estot esétu Santa Miñan erromeriyarik, Askóiren bes, e!, nire sasóerako mésia bai, oin be eoten da, baia esate abien len, jente ásko eote sala Askórren, asko asko, baia erromeirik estot esétu. Bakiya neu enas jun, baia Bakiyan oin be itten da, ni enas sekule juen, ni gaste gastetan juéngo nítxen, baia nógas? Esta isen olako romériya popúlarra, Bakiyaku(a). Oiñ geiyau itten da, oiñ popúlarrau plantau da, oiñ jente asko jueten da, baia lén esan populárra. Samamesen estot pentzetan isen danik olako romeriyarik, se oin be eoten da or mésia, baia romeriyau moukoik es. Emengo au béruneuko ausúek len, nik estot esetu,e!, nire éurreti isen da, baia jenterik geiyen esate abanaittik, Askórren juntau (a)bala. Nik esautu dot basarri erromeiyarik popularrenetaikue, Oósketa, Santiyau, Santiyaun jente asko eote san, gure sasoién be bai.”

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-05-01

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com